



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko martxoaren 20a

44. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-24/CCO-00009. “Antsoingo Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-24/CCO-00009. “Antsoingo Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin

2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Antsoingo Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Adieraztea Antsoingo Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publiko eta dirulaguntzei buruzko fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

AURKIBIDEA

I. SARRERA	4
II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA.....	4
III. IRITZIA.....	4
IV. IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN.....	5
V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK	5
VI. ANTSOINGO UDALAREN ERANTZUKIZUNA.....	5
VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	5
VIII. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK	6
1. GEHIGARRIA. ANTSOINGO UDALA.....	7
2. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA.....	9
3. GEHIGARRIA. BETETZEAREN FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK	9
3.1. Langileak.....	9
3.2. Administrazio-kontratazioa	12
3.3. Transferentzia-gastuak.....	14
3.4. Next Generation funtsak.....	16
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK	17
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA.	18

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2023ko bere jarduketa-programari jarraikiz, langileen, kontratazio publikoaren eta dirulaguntzen arloan Antsoaingo Udalari 2022ko ekitaldian aplikatzekoa zaion legeria betetzearen fiskalizazioa egin du.

Landa-lana 2023ko urrian eta azaroan egin zuen auditoria-teknikariz eta auditore batez osatutako lantalde batek, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Jardun honen emaitzak Antsoaingo alkateari jakinarazi zitzaizkion, kasua izan ezkerro egokitzen jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Ezarritako epea igarota, alegazioak aurkeztu egin ditu Antsoaingo alkateak. Alegazio horiek txostenean txertatu dira, Ganbera honek emandako erantzunarekin batera.

Eskerrak ematen dizkiegu Antsoaingo Udaleko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Txosten honetako datu ekonomiko guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Emandako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez biribildutako datuen batura.

II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Gure lanaren helburua da iritzia ematea ea honako gai hauei dagokienez Antsoaingo Udalak 2022ko ekitaldian zehar egindako jarduerak bat datozen, alderdi esanguratsu guztietan, aplikatzekoa den arau-esparruarekin:

- Langileria: alderdi orokorrak, nominetako ordainsariak aztertzea eta enplegu publikoa egonkortzeko prozesua berrikustea.
- Kontratazio publikoa: munta txikiko araubideko kontratazioa eta kontratu egokirik gabeko prestazioak.
- Zuzeneko emakidaren araubidezko dirulaguntzak.

Era berean, zenbatu egin ditugu Next Generation Funtsetatik jasotako dirulaguntzak eta horiekin finantzaturiko gastuak, oinarri harturik Udalak helarazi dizkigun datuak.

Fiskalizazioaren norainokoak barne hartzen ditu txosten honen 3. gehigarrian aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketak.

Gure lanaren norainokoak ez du barne hartzen Idakiorlak SL udal-sozietate publikoa.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2022ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztapenak ere egin dira, beharrezkoak direnak ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

III. IRITZIA

Nafarroako Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, fiskalizazioa egin du, Antsoaingo Udalak 2022ko ekitaldian langileria, kontratazio administratiboa eta dirulaguntzak direla-eta legeria betetzeari buruzkoa.

Gure ustez, eta gure lanaren norainokoa aintzat hartuta, eta alde batera utzirik gure txostenaren "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" atalean azal dutako aferaren efektuak, langileen, kontratazioaren eta dirulaguntzen arloan Antsoaingo Udalaren 2022ko ekitaldiari dagozkion jarduera aztertuak bat datoz, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

IV. IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN

Kontratazio administratiboari dagokionez, honako salbuespen hau adierazi behar dugu:

- Munta txikiko kontratuen araubide bereziaren bidez izapidetu dira 342.637 euroko zenbatekoa egiten duten prestazioak, 11 hornitzaileekin, txosten honen 3.2 gehigarrian zehazturiko zerbitzu eta hornidurak direla-eta. Horiek baina, beren balio zenbatetsiari zegokion prozeduraren bidez lizitatuak izan beharko ziratekeen.

Egin dugun fiskalizazioa kanpo-kontrolako erakunde publikoen funtsezko fiskalizazio-printzipioei jarraitzen zaie; eta, zehazkiago, ISSAI-ES 400 arauari, zeina legeriaren betetzeari buruzko fiskalizazioei buruzkoa baita. Halaber jarraitzen zaie kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio-gida praktikoei. Arau horien indarrez dugun erantzukizuna aurrerago deskribatzen da, txosteneko "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean hain zuzen ere.

Entitate fiskalizatuarekiko independenteak gara, hala behartzen dute-eta legeriaren betetzeari buruzko gure fiskalizazioari aplikatzekoak zaizkion eskakizun etikoek eta independentzia babeste-koek, bai eta fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak ere.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen du gure legezketasun-fiskalizaziozko iritzia salbuespenekin adierazteko.

V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK

Auditoretzako gai giltzarriak dira gure iritzi profesionalaren arabera munta handiena izan dute-nak aztertutako aldiari dagokionez legeriaren betetzeaz egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek mul-tzoan jorratu ditugu, legezketasunari buruz egin dugun auditoretzaren testuinguruan eta gure iri-tziaren taxuketan; eta ez dugu horiei buruzko iritzirik bereiz azaltzen.

Txosten honetako "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" atalean azaldutako zertzeladak salbu, ez dugu gure fiskalizazioan funtsezkotzat jotako inolako gorabeheraren berririk ematen.

VI. ANTSOINGO UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Antsoingo Udalaren Idazkaritzak eta Kontu-hartzaitzak bermatu behar dute fiskalizatutako arloetako jarduerak bat datozela aplikatu beharreko araudiarekin.

Era berean, Udalaren erantzukizuna da beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak ezartzea, bermatuko dutenak egindako jardueran ez dagoela ezer legez kanpokorik.

VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure helburuak honako hauek dira: arrazoizko segurtasun bat lortzea fiskalizatutako gaietan Udalak 2022ko ekitaldian egindako jarduerak ez-betetze esanguratsurik gabekoak izateaz, eta be-tetzeari buruzko fiskalizazio-txosten bat egitea, gure iritzia jasotzen duena.

Arrazoizko ziurtasuna ziurtasun maila handia da, baina horrek ez du bermatzen fiskalizazio pu-blikoaren jarduerari buruzko araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti harrapatuko duenik muntazko ez-betetze bat, halakorik egonez gero. Ez-betetzeak iruzur edo akatsen ondorio izan daitezke, eta materialtzat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta.

Kanpo kontrolako organoen fiskalizazio-jarduerari buruzko araudiari jarraituz eginiko fiskaliza-zio baten atal gisa, gure irizpide profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan zehar. Gainera:

- Iruzur edo akatsen ondoriozko ez-betetze muntadunetarako arriskuak identifikatu eta balora-tzen ditugu, auditoretza-prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta gure iritziori oinarria emateko auditoretza-ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu. Ez-be-tetze esanguratsu bat iruzurraren ondoriozkoa denean, hori ez detektatzearen arriskua handiagoa

da errearen ondoriozkoa denean baino; izan ere, iruzurraren osagai izan daitezke kolusioa, faltsutzea, berriazko omisioak, apropos eginiko adierazpen okerrak edo barne-kontrolari itzuri nahia.

- Fiskalizaziorako muntazkoa den ezagutza lortzen dugu barne-kontrolatik, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak taxutze aldera, eta ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzirik emate aldera.

- Ebaluatzen dugu prozedurak egokiak diren, bai eta kudeaketa-organismoak emandako informazioaren arrazoizkotasuna ere.

Entitatearen gobernu-organismoarekin harremanetan aritzen gara gai hauen inguruan, besteak beste: planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta haien egiteko unea, fiskalizazioaren aurkikunde adierazgarriak, bai eta fiskalizazioan zehar identifikatzen ahal dugun barne-kontrolako edozein akats muntadun ere. Entitatearen gobernu-organismoari jakinarazi zaizkion gorabeheren artean, zehazten dugu zein izan diren legezko kotasun-fiskalizazioan munta handienekoak eta, horren bestez, auditoretzako gai giltzarri direnak.

VIII. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK

Langileriari, kontratazioari eta dirulaguntzei buruz eginiko betetze-fiskalizazioko lanaren emaitza gisa, Ganbera honek gomendatzen du:

Lizitazio-prozedura egokia izapidetzea, beharizan errepikakorrei erantzuteaz gain balio zenbatetsia munta txikiko araubidezko kontratuetarako ezarritako mugak baino handiagoa duten presztazioetarakoak diren kontratuetarako.

Beste gomendio batzuk jaso ditugu 3. gehigarrian, beste ohar batzuei eta fiskalizazioaren beste aurkikuntza batzuei buruzkoan.

Txosten hau jaulkitzen da, indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen izapideak bete ondoren, lan honen arduradun Asunción Olaechea Estanga auditoreak proposatuta.

Iruñean, 2024ko otsailaren 9an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

1. GEHIGARRIA. ANTSOINGO UDALA

Antsoingo udalerrria Iruñeko merindadean dago, eta Iruñerriaren eskualde geografikoan dago. 1,93 km²-ko azalera du, eta 10.588 biztanle zeuzkan 2022ko urtarrilaren 1ean.

Udal antolamendua, besteak beste, honako organo hauek osatzen dute: Osoko Bilkurak (17 kide), Tokiko Gobernu Batzarrak, eta Alkatetzak. Lau batzorde eratu dira.

Udalak ez du zerbitzu publikoak kudeatzeko erakunde autonomorik atondu.

2017an, udalak Idakirolak SL enpresa publikoa eratu zuen, Antsoingo kirol-instalazioak eta Espazio Eszenikoa kudeatzeko zerbitzuak emateko.

2022ko ekitaldia ixtean, honako hauek ziren Udalaren diru- eta langile-datu nagusiak:

- Administrazioaren sektore publikoa:

Entitatea	Eskubide aitortuak	Betebehar aitortuak	Langileak, 2022-12-31n
Udala	9.920.444	10.554.029	104 *

*Kontu-hartzailetzaren txosteneko datua.

- Idakirolak SL sozietate publikoa:

Sozietate publikoa	Negozio-kopuru garbia	Ekitaldiko emaitza	Udalaren dirulaguntza	Epe luzeko zortzetzea	Ondare garbia	Langileak, 2022-12-31n
Idakirolak	541.184	2.756	0	0	8.153	9,58

Idakirolak udal-sozietate publikoaren 2022ko ekitaldiko kontuak ikuskatuta daude, eta finantza-auditoretzako iritzia aldekoa da.

Udalak honako mankomunitate hauetan hartzen du parte:

a) Iruñerriko Mankomunitatea: haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzua, hiri-hondakin solidoen bilketa eta tratamendua, eskualdeko hiri-garraioa eta eskualdeko taxi-zerbitzua. Mankomunitateari eskualde-garraiorako egin zaion transferentzia 268.533 eurokoa izan da 2022an.

b) Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Itza eta Txulapaingo udaletako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean parte hartzen du. Horren bidez emaniko zerbitzuak dira etxez etxeko laguntza, drogamenpekotasun-programa, gizarte-abegia eta -orientazioa, gizarteratze eta laneratzea, haurtzarora eta familia, enplegu sozial babestua eta etorkin diren herritarrekiko ekintzak. Mankomunitate horri egin zaion transferentzia 229.660 eurokoa izan da 2022an.

Honako hauek dira Udalak ematen dituen zerbitzuak eta horiek emateko modua:

Zerbitzua	Zuzeneko kudea-	Zeharkako ku-	Mankomunitatea
	keta	deaketa	
	Udala	Enpresa publikoa	Zerbitzu-kon-tratua
Argiteria publikoa	X		
Bilketa eta tratamendua Hiri-hondakinak			X
Kale-garbiketa			X
Uraren ziklo integrala			X
Estolderia			X
Parke publikoa	X		
Liburutegia-ludoteka	X		
Gizarte zerbitzuak			X
Kirol instalazioak	X	X	
Bidaiarientzako hiri barruko garraio kolektiboa			X
Hirigintza	X		
Udaltzaingoa	X		
Ingurumena	X		
Kulturaren sustapena eta kultur ekipamenduak	X		
Ikastetxe publikoak mantentzea	X		
Berdintasunaren sustapena	X		
Merkataritza ibiltaria	X		
0-3 urtekoen ikastetxeak	X		
Musika Eskola			X
Haur- eta gazte-alorreko esku-hartze sozio-komunitarioa			X
Udal eraikinen garbiketa	X		
Ikastetxe publikoak mantentzea	X		

2. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Udalari aplikatzekoa zaion arau-esparru nagusia honako hau da:

Estatuko araudia

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa.

Foru araudia eta tokikoa

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.
- Aurrekontua betearazteko oinarriak.
- Ordenantzak.

3. GEHIGARRIA. BETETZEAREN FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta fiskalizazio-txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat Ganbera honen ustez interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri zenbait ere.

Orobat gehitu ditugu Udalaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeari begira Ganbera honen ustez beharrezkoak diren gomendioak.

3.1. LANGILEAK

Udalaren langile-gastuak 5,16 milioi eurokoak izan ziren, eta ekitaldian sortutako gastu guztien % 49 egin zuten.

Honako taula honetan ematen da gastu horren xehakapena:

Kontzeptu ekonomikoa	Aitortutako betebeharrak (2022)
Udalkideen ordainsariak	121.825
Behin-behineko langileen ordainsariak	86.461
Funtzionarioen oinarritzko ordainsariak	1.750.024
Funtzionarioen ordainsari osagarriak	747.172
Lan-kontratudun finkeko ordainsariak	162.592
Aldi baterako lan-kontratudunen ordainsariak	518.871
Enplegu-sustapeneko langileen ordainsariak	46.153
Gizarte-kuotak	1.683.233
Langileen prestakuntza	38.776
Guztira	5.155.107

Plantilla organikoa

Udalaren 2022rako plantilla organikoari 2021eko azaroaren 30ean eman zitzaion hasierako onespena, eta 2021eko abenduaren 20ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO, aurrerantzean) argitaratu zen. Landa-lana egin zenean onetsita zeuden lau aldaketak aintzat harturik, 2022ko plantillak 98 lanpostu jasotzen ditu, honako sailkapen hau daukatenak:

Sailkapena	Lanpostuak
Behin-behineko langileak	2
Funtzionarioak	66
Lan-kontratadunak	30
Guztira	98

Plantillako lanpostuetatik, ehuneko 67 funtzionarioak dira; ehuneko 31, lan-erregimenekoak; eta gainerakoak, behin-behineko langileak.

Honako hau zen lanpostuen egoera 2022ko abenduaren 31n:

Langileria	2022
Plantillako lanpostuak	98
Beteta	55
Hutsik	43
Lanpostu hutsak lanpostu guztien gainean (%)	44
Bete diren lanpostu hutsak	36
Bete diren lanpostu hutsak (%)	84
Bete gabeko lanpostu hutsak	7
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	16

2022an, plantillako lanpostu guztien ehuneko 44 hutsik zeuden; horietatik, ehuneko 84 aldi baterako zeuden beteta, eta gainerakoak, ehuneko 16, artean bete gabe.

Datu horien arabera, 2022an, langileen behin-behinekotasunaren indizea, aldi baterako betetako lanpostu hutsen eta modu finkoan edo behin-behinean betetako lanpostu guztien arteko zatidura gisa kalkulaturik, ehuneko 40koa litzateke.

2023ko otsailaren 13an, 2022ko abenduaren 31ko langile-zerrenda argitaratu zen.

Enplegu publikoaren egonkortzea

Enplegu publikoaren egonkortze prozesua aztertu dugu aintzat harturik zer betekizun eta epe ezartzen diren uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legean, Enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoan.

Osoko Bilkurak 2022ko urriaren 26an erabaki zuen partzialki atxikitzea aipatu uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen II. tituluaren aplikazioari.

Honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

- Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko apirilaren 28an, aldi baterako enplegua egonkortzeko 20 lanpostuko enplegu-eskaintza publiko bat (EEP, aurrerantzean) onetsi zuen, 2022ko maiatzaren 12ko NAOan argitaratua, EEPa onesteko eta argitaratzeko epe aurreikusiarren barrenean, 2022ko ekainaren 1era artekoa izaki.

- EEParen 20 lanpostu horietatik, 18 sartuta daude merezimendu-lehiaketako hautaketa-sisteman, eta bi, oposizio-lehiaketako sisteman.

- Lagin batean egiaztatu dugu ezen EEPan sartuta dauden lanpostuek bete egiten dituztela ezarritako baldintzak, eta lanpostua betetzeko modua araudiaren arabera dela.
- Lanpostu horiek guztiak betetzeko deialdiak 2022ko abenduaren 12ko eta 19ko NAO n argitaratu ziren, araudiarekin bat, zeinak epemugatzat ezartzen baitzuen 2022ko abenduaren 31.
- Txosten hau egin den garaian, deituriko lanpostuak honako egoera hauetan daude:

Hautatze-sistema	Deialdia amaituta	Aribidean	Hasteko zain	Deitutako lanpostuak, guztira
Merezimendu-lehiaketa	6	11	1	18
Oposizio-lehiaketa	1	1		2
Lanpostuak, guztira	7	12	1	20

Hautapen-prozesu horiek 2024ko abenduaren 31 baino lehen ebatzi beharko dira, data horretarako bete behar baita legez aurreikusitako helburua; hots, aldi baterako kontratuak egiturazko lanpostuen ehuneko 8ra murriztea.

Langile-gastuaren egiaztapenak

2022an, Udaleko funtzionarioen eta kontratu administratibodunen enplegu-baldintzak araututa zeuden 2009-2012 eperako onetsitako "Antsoaingo Udalaren eta haren Patronatuen funtzionarioen enplegu-baldintzei buruzko akordioa" zeritzon. Akordio hori, bertan jasotzen den bezala, automatikoki luzatzen da beste bat sinatu arte. 2023ko urriaren 31n argitaratu zen NAO n "Akordio edo Itun Mistoa, Antsoaingo Udaleko funtzionario, administrazio-kontratadun langile eta lan-kontratadun langileentzako"

2022ko urriko nominako ordainsari-kontzeptuen lagin bat aztertu dugu, hilabete horretan ordaindutako lansarien ehuneko 65 hartzen duena, 77 langilerenak. Honako hauek izan dira berrikusitako ordainsariak eta haien zenbatekoak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Mailaren hasierako soldata	90.709
Gradua	14.401
Antzinasuna	3.132
Lanpostuko osagarria	25.719
Mailako osagarria	6.969
Berriazko osagarria	9.986
Arrisku bereziko osagarria	1.639
Lanaldiaren luzapeneko osagarria	120
Arduraldi eskusiboko osagarria	3.528
Txandakako lanaldiaren osagarria	588
Guztira	156.791

Ikusi dugunez, ordaindutako ordainsari-kontzeptuak dira plantillan sarturik dauden lanpostuetarako aurreikusitakoak; eta, antzinasun eta graduaren kasuan, zerbitzu-aitorpenaren datari dagozkionak.

3.2 ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

2022ko ekitaldiko ondasun eta zerbitzuengatikoko gastu arruntak 3,71 milioikoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 35 egiten dute.

Honako koadro honetan agertzen ditugu haiek, atal ekonomikoka xehakaturik:

Kontzeptu ekonomikoa	Aitortutako betebeharrak (2022)
Ibilgetu materialaren errentamenduak	25.622
Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioa	294.867
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	3.387.168
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	196
Argitalpen-gastuak	5.056
Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak, guztira	3.712.909

2022ko ekitaldian egindako inbertsioek 985.367 euro egin zuten. Ekitaldian aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko bederatzia egiten dute. Hona horien xehakapena, kontzeptu ekonomikoka:

Kontzeptu ekonomikoa	Aitortutako betebeharrak (2022)
Hiri altzariak	50.312
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	725.353
Makineria	99.732
Garraio-elementuak	57.354
Altzariak	12.949
Informazio-prozesuetarako ekipamenduak	37.586
Beste inbertsio batzuk (kilikiak konpontzea)	2.081
Inbertsioak, guztira	985.367

Gure lanaren nondik norakoa izan da zerbitzu-emateak, hornidurak eta munta txikiko kontratu gisa izapideturiko obrak aztertzea, bai eta kontratu mugaeguneratuak zeuzkaten prestazioak ere, gastu arrunten kapituluan ondasun eta zerbitzu gisa kontabilizatuak, eta halaber inbertsioen kapituluan.

Honako koadro hauetan erakusten ditugu bi kapitulu horietako gastuen guztizkoa, horiek zenbat hornitzaile dagozkien, eta horien xehakapena, irizpide harturik ea munta txikiko kontratuengatikoko araubide bereziaz bestelako lizitazio-prozedura bat egin ote zen haientzat. Berrikusitako laginaren berri ere ematen dugu.

Gastu arruntak, ondasunetan eta zerbitzuetan Zenbatekoa	Zenbat hornitzaile	Gastua, guztira	Gastu be- rrikusia	Hornitzaile- kopurua
15.000 euro gehi BEZa baino gehiago	20	2.844.247	1.239.622	14
3.750 euro eta 15.000 euro artean (gehi BEZa)	51	436.690	83.395	8
3.750 euro gehi BEZa baino gutxiago	444	431.972	8.229	2
Guztira	515	3.712.909	1.331.246	24
Lizitazio-prozedura duten prestazioak	6	1.604.625		
Araubide bereziko prestazioak munta txikiko kontratuengatikoko	509	2.108.284	1.331.246	24
Guztira	515	3.712.909	1.331.246	24

Berrikusi dugun lagina 24 hornitzaile dagozkien ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten ehuneko 36koa da. Kapituluko hornitzaile guztien ehuneko bost egiten dute.

Inbertsioak Zenbatekoa	Kontra- tista-kop.	Gastua, guztira	Gastu be- rrikusia	Kontratista- kop.
40.000 euro gehi BEZa baino gehiago	6	693.210	127.296	2
15.000 euro eta 40.000 euro artean (gehi BEZa)	3	87.436	87.436	3
15.000 euro gehi BEZa baino gutxiago	49	204.721	0	
Guztira	58	985.367	214.732	5
Lizitazio-prozedura duten prestazioak	4	565.914		
Araubide bereziko prestazioak munta txikiko kontratuatarako	54	419.453	214.732	5
Guztira	58	985.367	214.732	5

Hautatu dugun laginak 214.733 euroko zenbatekoa dauka, eta bost hornitzaileena da. Inbertsioei buruzkoa den 6. kapituluaren aitorturiko betebeharren ehuneko 22 egiten dute, eta kapitulu horretako hornitzaile guztien ehuneko lau.

Munta txikiko kontratazioak

2022ko lehen hiruhilekoan, Antsoaingo Udalak epe horretako munta txikiko kontratuak argitaratu zituen Nafarroako Kontratazioaren Atarian. Urte-amaieran gauza bera egin zuen gainerako hiruhilekoei zegozkien munta txikiko kontratuekin.

Berrikusitako laginean, ikusi dugu munta txikiko kontratuen araubide bereziari jarraikiz izapidetu direla Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean ezarritako mugak baino gehiagoko balio zenbatetsia zeukaten zerbitzu eta hornidurak, zeinak honako hauei baitagozkie:

Xedea	2022an ordaindutako gastua
Haur eta gazteen esku-hartze soziokomun. programen kudeaketa	117.275
Azken errekurtsoko elektrizitate-hornidura	108.157
Produktu kimikoak eta kloroa	22.900
Festa-karpak alokatzea	21.583
Komunikazio instituzionaleko zerbitzuak	16.069
Garbigaiak	13.820
Udal-informazio aldizkaria eta kultur agenda diseinatu eta inprimatzea	13.185
Desinfektatzea eta arratoi-hiltzea	10.016
Eraikinetako hotz- eta bero-instalazioen mantentzea	7.458
Haur-parkeen mantentzea	7.334
Suteen aurkako sistemaren mantentzea	4.840
Guztira	342.637

2023an lizitatu ziren haur eta gazteen alorreko esku-hartze soziokomunitarioko programa, komunikazio instituzionaleko zerbitzua eta udal-informazio aldizkariaren nahiz kultur agendaren diseinatze eta inprimatzea.

Inbertsioei dagokienez, berrikusitako laginean egiaztatu dugu munta txikiko kontratuen araubide bereziaren bitartezko izapidetzea egokia dela.

Idakirolak SL sozietate publikoak kudeatzen ditu kirol-jarduerak, baina udala da kirol-instalazio eta igerilekuetarako hornidura, zerbitzu eta obretarako kontratazio guztiak egiten dituen¹.

¹ Aurkeztutako alegazioarengatik txertatu da paragrafo hau.

Azken urteotako prezio-gorakadak ekarri du gastu asko egotea, halakoak non 81. artikuluko muga orain arte gainditu ez baina orain bai, gainditu egiten baitute; hori horrela, gastu horiek guztiak batu egin zaizkie jadanik egon bazeuden eta aginduzko lizitazioa zeukaten gastuei.¹

Argindarrari dagokionez, Antsoingo Udalak, lizitazio-prozesurako, kanpoko energia-aholkularitza baten zerbitzuak kontratatu zituen; elektrizitate-gastuaren parte handi bat lizitatu zuen, eta lizitatu gabeko gainerako kontratuei zegokienez, prezioen eta kontratazio-baldintzen alderaketa bat egin zuen, hornitze-enpresa desberdinen artekoa.¹

Kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak

Udalak helarazitako informazioaren arabera, 2022an 15.609 euro ordaindu ziren, mugaeguneturiko kontratu honetakoak ziren zerbitzu-emateengatik:

Kontratuaren xedea	2022an ordaindutako gastua	Gastu metatua kontratua amaitu zenetik 2022/12/31ra arte	Kontratuaren amaiera-data
Gizarte-zerbitzuen eta ikastetxeko aldagelen garbiketa	15.609	20.812	2021/08/31

Landa-lanaren datan, Udala aurreko koadroan zehaztu den garbiketa-kontratuaren lizitaziorako pleguak ari da idazten.

Gure konklusioak aintzat harturik, gomendatzen dugu kontratazio administratiboko prozeduretan denbora-plangintza egokia ezar dadila, kontratuen gehieneko indarraldia gainditu ez dadin.

3.3 TRANSFERENTZIA-GASTUAK

2022an, transferentzia-gastuak 676.644 eurokoak izan ziren; kopuru horrek gastu guztien ehuneko sei egiten du. Hona horien xehakapena, kontzeptu ekonomikoa:

Kontzeptu ekonomikoa	Transferentzia arruntak
Haur-eskolak. Modulua	5.667
Mankomunitateak	498.193
Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoa	16.533
Irabazi asmorik gabeko entitateak	151.361
Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, Nafarroako Toki Entitateen Sarea	4.890
Guztira	676.644

Ez da kapital-transferentziarik eman.

2022an, udalak ez zeukan dirulaguntza-plan estrategikorik (DPE). Dena den, Udalaren osoko bilkurak, 2023ko otsailaren 22an, 2023-2024 eperako DPEa onetsi zuen.

Udalak 2008an onetsitako ordenantza bat badauka, honakoetarako dirulaguntzak arautzen dituena: kultura, hezkuntza, kirola, gazteria, laguntza, giza laguntza eta gizarte laguntza.

Zuzeneko ematearen araubidezko dirulaguntzak

Udalaren informazioaren arabera, 87.865 euro eman zizkien dirulaguntzetan, zuzeneko ematearen araubidearen bidez, 11 onuraduni, jarraian zehazten denaren arabera:

Onuraduna	Behin betiko kreditua	Gastua (2022)
Gazte Berriak futbol-kluba	25.000	25.000
Gazte Berriak saskibalo-kluba	15.000	14.263
Ezkaba Ikastetxe publikoa	11.300	11.300
Cáritas	10.000	10.000
Gure Gunea txosna-elkartea	7.500	7.500
Erraldoien eta Buruhandien Konpartsa	3.000	2.880
Antsoain Kultur Koordinakundea (Olentzero)	6.000	2.456
Erregeen Desfilea elkarte	6.000	6.000
Ezkaba jubilatuen elkarte	3.450	4.228
Antsoain Kultur Koordinakundea (inauteria)	3.300	2.842
AEK (Korrika)	1.500	1.396
Guztira	92.050	87.865

Dirulaguntza horiek guztiak Tokiko Gobernu-batzarrak onetsi ditu, kasuko hitzarmenean araututa daude eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratu dira.

Honako lagin hau aztertu dugu, onartutako dirulaguntza izendunen ehuneko 64 hartzen duena:

Onuraduna	Zenbatekoa, 2022
Gazte Berriak futbol-kluba	25.000
Gazte Berriak saskibalo-kluba	14.263
Cáritas	10.000
Ezkaba jubilatuen elkarte	4.228
Antsoain Kultur Koordinakundea (inauteria)	2.842
Guztira	56.333

Aurreko analisitik ondorioztatzen dugu ezen, oro har, berrikusitako dirulaguntza izendunen onespena, justifikazioa eta ordainketa aplikatzeko den araudiari jarraikiz egin zela eta haiek behar bezala kontabilizatuta daudela. Halaber, kontu-hartzaileak berrikusi egin du onuradunak aurkeztu duen gastu-justifikazioa.

Dena den, honako akats hauek aipatu behar ditugu:

- Oro har, diruz lagundutako jarduera finantzatu duen beste diru-sarrera edo dirulaguntzarik ez da zehazten.

- Onuradunak ez du kasu guztietan ziurtagiria aurkeztu, Nafarroako Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin dituen betebeharrak beteta dauzkala frogatzen duena. Jubilatuen klubak eta inauteria antolatzen duen elkarteak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu dute, entitate horiei zergarik ordaintzera behartuta ez daudela dioena.

- Oro har, justifikazio-kontuko gastu-zerrendan ez da jasotzen hartzekodunaren identifikaziorik ez eta ordainketa-egunik ere.

- Inauterietarako elkartearantzako dirulaguntzan, ez da identifikatzen, aurrekontu-partidan, nor den dirulaguntzaren onuraduna.

- Jubilatuen klubarentzako dirulaguntzaren partidako behin betiko kreditua baxuagoa da hitzarmen arauemaietan ezarritako zenbatekoa baino; horrenbestez, aitorturiko betebeharra handiagoa da kreditu hori baino, nahiz eta lotura-poltsa ez den gainditzen. Hala ere, 2023an jubilatuen klubak

itzuli egin zuen 2022an onetsitako dirulaguntza guztia, 4.228 euro, ezen jardueraren egiazko kostutik gorako gaindikina ematea itzulketa-arrazoia da.

Egin dugun lanaren konklusioak kontuan hartuta, hona gure gomendioak:

- *Dirulaguntzaren onuradunari erantzukizunpeko adierazpen izenpetu bat exijitzea, diruz lagundutako jardueraren finantzaketarako jasotako beste dirulaguntza eta laguntza batzuei buruzkoa.*

- *Dirulaguntzaren onuradunari exijitzea Nafarroako Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin dituen betebeharrak beteta dituela frogatzen duen dokumentazioa eduki dezan; edo, halako betebeharrak ez badauka, horri buruzko adierazpen bat.*

- *Onuradunaren gastuak justifikatzeko plantilla homogeneousak egitea, araudiak ezartzen dituen betekizunen araberakoak.*

- *Dirulaguntza izendunetan, aurrekontu-kredituen lotura juridikoa partida-mailan ezartzea, hitzarmenean edo onespenez ebazpenean baimendutako zenbatekoa duen aurrekontu-kreditua gaitzea, eta aurrekontu-partidan dirulaguntzaren onuraduna identifikatzea.*

3.4 NEXT GENERATION FUNTSAK

Europar Batasunak estatu kideen multzoari baliabideak bideratzea erabaki zuen, Next Generation funtsen bitartez, COVID-19aren pandemiaren eragina samurtzeko eta ekonomiaren suspertze-ari bultzada emateko.

2022an, Udalak 21.297 euro gastatu zituen ibilgailu elektrikoetarako karga-puntuetan. Hori finantzatzeko, Next Generation funtsetako 5.180 euro eman zizkioten 2023an.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Antsoainen kasuan munta txikiko kontratuaren mugak gainditzen dituzten gastuei dagokienez:

- Esanguratsua iruditzen zaigu, eta ondorioz bidezkoa, txostenean jasota uztea (19. orrialdean, "Munta txikiko kontratazioa" izeneko atalaren azken paragrafoaren ondoren), Antsoaingo Udalak bere kontratazio publiko guztia Udalaren bitartez egiten duela. Idakirolak SL sozietate publikoak kudeatzen ditu kirol-jarduerak, baina Udala da kirol-instalazio eta igerilekuetarako hornidura, zerbitzu eta obretarako kontratazio guztiak egiten dituena.
- Bestetik, halaber gustatuko litzaiguke ohartarazita uztea ezen, azken urteotan prezioek izandako gorakadaren ondorioz, gastu asko daudela orain dela gutxi arte ez zuten gainditzen 81. artikuluko muga, baina orain bai, gainditu egiten dutenak; horrenbestez, gastu horiek guztiak gehitu egin zaizkie jadanik bazeudenei, zeinek aginduzkoa baitzeukaten lizitazioa (hori ere 19. orrialdean txertatu beharra dago, "Munta txikiko kontratazioa" atalaren azken paragrafo gisa).

Munta txikiko araubidezko kontratazio-muga gainditzen duten argindar-gastuei dagokienez

Antsoaingo Udaletxerako argindar- eta gas-hornidurarako kontratuak lizitzatzeko prozesua, 2021ean egina, teknikoki oso konplexua izan zen, merkatu honen egiturarengatik, zeuden arriskuengatik eta bertako prezioen aldakortasunarengatik. Hain zuzen ere, hain konplexua non energia-aholkularitzan espezializaturiko kanpo-enpresa baten lankidetzara eskatuta, hark lagundu egin baitzuen merkatuko prezioen analisisian eta horren ondorengo kontratu-lizitazioaren kalkuluan, plegu teknikoaren prestaketan eta jasotako proposamen tekniko desberdinen balorazioan.

Bi kontratu horiek, argindarrarena eta gasarena, 2021eko apirilean esleitu ziren. Are lizitazioa eginda ere, ondoren, lau hilabete geroago besterik ez, gas-kontratuaren enpresa adjudikaziodunak aldeakartasunez hutsaldu zuen kontratua, ezinbesteko arrazoiengatik, alegatuz ezen handizkako merkatu guztietan gas naturalaren prezioak ezohiko gorakada izan zuela. Nafarroako Administrazio Auzitegiak berretsi egin zuen iritzi hori.

Argindar-horniduraren lizitazioari dagokionez, Antsoaingo Udalak aurretiazko azterlan bat egin zuen, dauzkan 30 argindar-hornidurako puntuen lizitaziorakoa. Elektrizitate-potentzia desberdinak dituzten argindar-puntuak dira, eta haien arteko alde horrek eragiten zuen prezio konparatuek gorabehera nabariak izan zitazela. Horri buruz esan behar da 2021ean Azken Baliabideko Tarifa indarrean zegoela: Gobernuak ezarritako tarifa da, argindar-prezioak onuragarriagoak egiten zituen 10 kW baino gutxiagoko potentzia kontratatua zeukaten hornidura-puntuentzat.

Bada, merkatuko prezioen artean hasierako alderaketa hori egin ondoren, ikusi zen ezen, 30 hornidura-puntuetatik, 14 puntuk 10 kW baino gutxiagoko potentzia zeukatela kontratatuta. Egoera aztertutik, elektrizitate-gastua lizitzatzearen ondorioak baloratu eta neurtu ziren, eta ondorioztatu zen 14 elektrizitate-puntu horien lizitazioak prezio-gorakada ekarriko zuela, eta Antsoaingo Udalak, hala, ez lituzkeela aprobetxatuko merkatuak azken baliabideko tarifa onuragarriarekin eskaintzen zituen aukerak.

Hortaz, eta argindar-kontsumoari dagokionez, erabaki zen 16 argindar-puntu lizitzatzea, eta 14 argindar-puntu ez lizitzatzea. Erabaki hori hartu zen aurretiaz merkatuko prezioak aztertuta eta ondorioztatuta ezen Antsoaintzat onuragarriaren aukera izanen zela argindar-kontratuak ez lizitzatzea 10 kW baino gutxiagoko potentzia kontratatua zeukaten puntuetarako.

Horregatik guztiagatik, eskatzen da auditoretza-txostenean honako esaldi hau berariaz txerta dadila: *“argindarrari dagokionez, Antsoaingo Udalak, lizitazio-prozesurako, kanpoko energia-aholkularitza baten zerbitzuak kontratatuta zituen; elektrizitate-gastuaren parte handi bat lizitatu zuen, eta lizitatu gabeko gainerako kontratuei zegokionez, prezioen eta kontratazio-baldintzen alderaketa bat egin zuen, hornitze-enpresa desberdinen artekoa”*.

Antsoainen, 2024ko otsailaren 5ean

Antsoaingo Udaleko alkate udalburua, Marta Díez Napal

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMAN-
DAKO ERANTZUNA.**

Aurkeztutako alegazioengatik eskerrak ematen dizkiogu Antsoaingo alkateari. Onetsi egiten ditugu alegazio horiek, eta behin betiko txostenean txertatu dira.

Iruñean, 2024ko otsailaren 9an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

